

KLIMA 2050 EKINTZA PLANA DONOSTIA

HIRIAK KLIMA-ALDAKETAREN
ERRONKARI EMANDAKO ERANTZUNA

www.donostia.eus/klima



Editorea:
Donostiako Udaleko Ingurumen Saila

Laguntzailea:
Fundación Cristina Enea Fundazioa

www.donostia.eus/klima


2018ko azaroa

ZER DA KLIMA- ALDAKETA?



Giza jardueraren ondorioz, planeta berotzen eta klima aldatzen ari da, eta muturreko fenomeno meteorologikoak areagotzen ari dira.


Poloen urtzeari edo horri aurre egiteko nazioarteko akordioei erreparatzen badiegu, **urruneko arazoa dela dirudi.**



NOLA SORRARAZTEN DUGU BEROTZEA?

Petrolioa edo ikatza erretzen dugunean, berotegi-efektuko gasak igortzen ditugu, eta gas horiek tenperaturen igoera eragiten dute.

Biztanle bakoitzeko emisioak hainbat herrialdetan (2012)



Klima-aldaketari hurbiletik erreparatzen badiogu, **eguneroko jardura askok eta askok eragiten dutela ikusiko dugu**, hala nola autoz ibiltzeak, beharrezkoa dena baino gehiago erosteak, hondakinak sortzeak, elektrizitate kantitate handia kontsumitzeak eta eraikin berriak egiteak.

Berotegi-efektuko gasen emisioen banaketa Donostian

Garraioa: % 40,2

Industria: % 28,1

Zerbitzuak: % 13,5


Bizilekuak: % 12,6

Hondakinak: % 5,2

Nekazaritza eta abeltzaintza: % 0,4



NOLAKO ERAGINA DU GURE BIZITZAN?




Uholdeak, lehorreak, olatu handiak, bero-boladak, urtarroetan gertatutako aldaketak eta itsas mailaren igoera jasaten ari gara.

Erronka hori hemen eta orain dagokigu, inplikazioak baititu pertsonen osasunean, ekonomian, nekazaritzan, bizi garen inguruneko segurtasunean eta abar.

NOIZ EGIN BEHAR ZAIO AURRE ERRONKARI?

Ondorio larriagoak saihestu nahi baditugu, emisioak zorrozki murriztu behar ditugu 2050. urterako, eta tenperaturen igoera kontrolatu behar dugu.

Jarduteko epea amaitzen ari da, eta eraldaketak lehenbailehen egin behar dira.



NOLAKO ZEREGINA BETETZEN DUTE HIRIEK?

Estatuen jarduera ez da nahikoa berotzea geldiarazteko. Soluzioetako askok hurbilak izan behar dute, eta herritarrek eta udalek parte hartu behar dute nagusiki.



Hiriak aktibatu egin dira klima-aldaketaren aurrean, eta konpromisoa hartu dute, Klimaren aldeko Alkateen Itunaren bitartez, emisioak 2030. urterako % 40 murrizteko eta aurreikusitako inpaktuetara egokitzeko.




ZEIN DA DONOSTIAREN KONPROMISOA?

Bidearen erdia egin dugu dagoeneko, emisioak % 22 inguru murriztu baitira, 2007tik aurrerako krisi ekonomikoagatik batez ere.

Hala ere, ahalegin itzela geratzen zaigu 2030. urteari begira: **datozen hamabi urteetan, emisioak % 1,6 murriztu behar ditugu urtean.**

Donostian berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko egin beharreko ibilbidea, 2007. urtetik aurrera



ZEIN DA GAUZAK ALDATZEKO GAKOA?

Legeria egokitzea eta teknologia efizienteagoak erabiltzea ez da nahikoa. Gure bizimodua eta gure eguneroko premiei erantzuteko modua aldatu behar ditugu.

Kultura-aldaketa bat behar dugu, pertsona guztien uste oso eta inplikazioarekin.



ZERTARAKO AHALEGIN HAU?

Klima-aldaketaren aurkako borroka herritarrek beren gain hartu beharreko zamatzat hartzen da sarritan.


Baina kontrakoa ere izan daiteke, klima-aldaketa **aukera bikaina baita hiriko bizi-kalitatea hobetzeko.**



ZER EGIN DEZAKEGU DONOSTIAN?

Arazo globalak toki-mailan jardunez arintzen lagundu dezakegu.

Horretarako, Klima 2050 Ekintza Plana dugu. Planak urrunera begiratzen du, baina hurbil dihardu.



NOLA JARRIKO DUGU ABIAN KLIMA 2050 PLANA?

**Berrogeita hamar ekintza
aurreikusi ditugu**, hala nola:

Etxebizitzen birgaitze energetiko eta
sozialerako laguntzak ematea



Hurbileko kontsumoa eta zerbitzuak
babestea



Azpiegiturak, eraikinak eta espazio
publikoa birnaturalizatu eta iragazkortzea




Oinezkoentzako eta txirrindularientzako
hobekuntzak aplikatzea




ZER LORTUKO DUGU?

Kuantifikatzeko moduko hogeit hamar helburu daude, hala nola:



2030. urterako energia-kontsumoaren ondoriozko berotegi-efektuko gasen emisioak % 40 murriztea




2030. urterako hondakinen % 80 gaika biltzea



2030. urterako azalera berde eta iragazkorra % 15 handiagoa izatea



2030. urterako oinez eta bizikletaz egindako joan-etorrien ehunekoak % 55era iristea



ZER EGIN DEZAKEZU ZUK?

Klima 2050 Ekintza Plana lantzeko, intentsitate handiko eztabaida publiko bat egin da, eta jarraitu egingo du datozen urteetan.

Hiria urrutira abia dadin, inplika zaitez.

KLIMAK ETA DONOSTIAK ZURE PARTE-HARTZEA BEHAR DUTE!



Eta, gainera, sartu webgunean eta egin zure ekarpena: www.donostia.eus/klima

Idatzi klima-aldaketari aurre egiteko zure konpromisoak:



Donostian oinez mugitzen ahaleginduko naiz

Zentzuz kontsumituko dut eta hondakinak hobeto bereiziko ditut

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

NOLAKO ERAGINA DU GUGAN KLIMA-ALDAKETAK?

ZEIN DA DONOSTIAREN KON- PROMISOA?

ZER EGIN DEZAKEGU?



www.donostia.es/klima